

## Mikel Laboa 12, Ai ene!

*Mikel Laboa. "12".  
Elkar argitaletxea.*

Behin batean bazen urrutiko erresuma hartan mutil gazte bat Atahualpa Yupankiren musika oso maitea zuena. Bartzelonara mediku ikastera joan zenean bertako "Nova Cancó"ren mugimendua ezagutu eta euskal kanta berriaren bultzatzaile bihurtu zena. Euskaldun fededun eta lege zahar zaleen eskandalurako kantaldiaren erdian ñe-ñe edo zai-zoi-zoiñie esaka eta oihuka has zitekeena, kitarra elektrikoa jotzen zuen tipo estrefalarario bat lagun zuelarik. Denbora kronologikoaren arabera euskal kantarien patriarka bilakatu zen arren, belaualdi berriekin konektatzeko ahalmenik handiena erakutsi zuena. Euskal kanta tradizionalak jaso eta moldatzeaz gain, puntako poeta

gazteen poemekin kanta zoragarriak egiteko gai azaldu zena. Eta beti ere musika-molde eta espresio bide berriak esperimentatzeko zaletasunari eutsi ziona.

Guzti hori zela medio, mutil gazte Yupanki-zale hura euskal musikaren sasi guztien gainetik zegoen kantari bitxi bilakatu zen. Tarteka ematen zituen kantaldiak arrakastuak izaten ziren eta marteka kaleratzen zituen diskoek ere harrera ona jasotzen zuten. Eta gauzek horretan iraun zuten, 12 izeneko disko hura iritsi zen arte.


Egia esan, diskoa ohizko bideetatik zihoan, apartekorik gabe. Arizkunen jasotako kantu zahar bat, lehen grabatutako kantu baten bertsio berria, instrumental pare bat, bi kanta berri hunkigarriak eta ohizko lekeitiokeriak. Agian zenbait momentuta-

ko jazz kutsu hura izango zen, edo lekeitioak landuagoak ziruditela, edo tronpeta hura, edo lilia hostoz-hosto biluztearen ederra, edo a, e, i, aieneka egindako Atxagaren galderak... Auskalo. Kontua da tantoka bateko lapikoak noizbaiten gainekak egiten duen bezala, 12 izeneko disko harekin erresumako biztanleen sentsibilitatea ase egin zela, bete. Eta herri hain txikia izanik Laboa bezalako artista handia edukitzea sekulako luxua zela ohartu zirenean, denek mirestu zuten kantaria eta beraren musika gozatu. Eta handik aurrera zorionsuago izan ziren.

Eta hau oraingoan ere egia ez bazan, sar gaitezela denok ondo merezia izango dugun kalabazan.

*Mikel Irizar*

amuebladora



mondragonesa

**Zabalik gaude!!  
Erakusketa berria  
Santamainan**

*Diru asko ala gutxi,  
ez ondolik pasa,  
ez begiak itxi.  
Sartu, ikusi...  
eta komeni bazaizu erosi*

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Fax: 791489 ARRASATE